

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 241/2020 Erabakia, ekainaren 9koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeentzako laguntzen ebazpenari, auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako 2020ko deialdiaren barruan

Ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauak auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako laguntza programa arautzen du II. tituluan.

8. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 25eko 406/2019 Erabakiaren bidez onetsi zen Arabako toki erakundeei programa horren kontura laguntzak emateko 2020ko deialdia, zeina ALHAOn argitaratu baitzen, 74. zenbakian, 2019ko ekainaren 28an.

Erabaki horrek bigarren xedapenaren bigarren puntuan ezarritakoaren arabera, "Hasierako finantza hornidura kuantifikatu da Arabako Foru Aldundiaren 2020rako aurrekontuan berariaz edo era osagarrian auzolanak finantzatzeko jasotzen diren partiden hasierako esleipenen batuketa eginda. Zenbateko horiek handitu ahal izango dira beren hasierako horniduraren ehuneko 50era arteko kopuruaz, 21/2013 Arauaren 21. artikuluko 2 puntuko b) apartatuan ezarritakoaren babesean".

Arabako Lurralde Historikoaren 2020rako Aurrekontua Gauzatzeari buruzko abenduaren 17ko 24/2019 Foru Arauari jarraikiz, foru aurrekontua onetsi zen, eta honako partida hauek esleitu ziren, auzo harremanak sustatzeko laguntza programa finantzatzeko:

10.2.03.16.01.768.00.03	Auzo harremanak sustatzeko ekimenak:	558.260,00 euro
10.2.03.16.01.768.00.04	Auzo harremanen osagarria:	175.800,00 euro

Horren ondorioz, aurretik aipatutako laguntza programa finantzatzeko partiden zenbatekoa, hasiera batean, 734.060,00 eurotan kuantifikatu zen.

Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuak, instrukziorako eskumena daukan organoa izanik, eta 21/2013 Foru Arauaren 10. artikuluan xedatutakoari jarraituz, prozedura bideratu du aipatutako foru arauan xedatutakoa betez.

Ondorioz, proposamena helarazi zaio kide anitzeko organoari, 21/2013 Foru Arauan ezarzen den bezala. Proposamen horrek honako hauek jasotzen ditu: eskatutako lanen zerrenda, ondoren atzera bota diren eskaerak, diruz lagundu daitezkeen lanak, dirulaguntza izango duten lanak eta baztertu diren eskaerak, horietako bakoitzari buruzko identifikazio eta kuantifikazio informazio zehatzarekin.

Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuaren instrukzio txostena eta kide anitzeko organoaren akta ikusirik, Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Auzo harremanak sustatzeko ekimenak 2020ko programarako deialdiari 93.555,05 euro gehitzea, Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 25eko 405/2016 Erabakiaren bigarren xedapenaren bigarren puntuan xedatutakoari jarraituz.

Bigarrena. Onestea I. eranskinean zerrendatzen diren Arabako toki erakundeei dirulaguntza ematea, auzo harremanak sustatzeko ekimenen 2020ko programaren kontura. Dirulaguntza horiek adierazitako zertarakoetarako eta zenbatekoetan emango dira eta, guztira, 637.995,05 euro egiten dute.

Toki erakunde onuradunak dirulaguntza onartu duela joko da baldin eta, 15 egun baliorduneko epean, erabaki honen jakinarazpena jasotzen duen egunetik aurrera, ez badu aurkezten dirulaguntzan atzera egiteko idazkirik Arabako Foru Aldundiaren Lurralde Oreka Sailean.

Hirugarrena. Erakunde onuradunak udal lizentzia eskuratu beharko du obrari ekin aurretik, lizentzia hori derrigorrezkoa bada.

Laugarrena. Toki erakundeak Arabako Foru Aldundiari honako hauek igorri beharko dizkio; osterantzean, ez da dirulaguntzarik emango: obra lizentzia eta organo eskudunen baimenak edo aldeko txostenak, baldin eta egin beharreko jardunak sektoreko legeriaren baten eraginpean badaude.

Bosgarrena. Dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2020ko aurrekontuaren kontura esleituko dira (taldea: 20.1.20; lerroa: 10-54).

Seigarrena. Emandako dirulaguntza ez da inola ere handituko.

Zazpigarrena. Obrak egiteko epea 2020ko azaroaren 30ean amaituko da. Epe bera izango da justifikazio dokumentuak aurkezteko.

Zortzigarrena. Erakundeak bere gain hartu beharko du obraren finantzaketa osoa.

Bederatzigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordainduko du dirulaguntza, Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuak adostasuna eman eta gero. Aldez aurretik, erakunde onuradunak auzolanen liburuko orriak bidali behar ditu, jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak, diruz lagundutako obra gauzatzeko egin diren auzolanen datuekin (eguna, parte hartzaileak eta lan egindako orduak adierazi behar dira, gutxienez), eta erakundeak onetsitako fakturak ere bai.

Materialari eta obra gauzatzeko beharrezko makinaren alokairuari dagozkion fakturak jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak izan beharko dira, baina kontzeptu horiek dirulaguntza eskaeran sartu badira bakarrik.

Erakundeak, jatorrizko fakturekin edo fotokopia konpultsatuekin batera, enpresari ordaindutako materialen frogagiriak aurkeztu ahal izango ditu. Une horretan aurkezten ez baditu, bi hilabete izango ditu, gehienez ere, ziurtagiriak aurkezteko, dirulaguntza jasotzen duenetik aurrera.

Ziurtagiri horiek ez badira aurreko paragrafoan adierazitako epean igortzen, hasiera emango zaio dagokion dirulaguntza eta berandutze interesak itzultzeko prozedurari.

Hamargarrena. Ez ematea dirulaguntzarik auzo harremanak sustatzeko 2020ko programaren kontura II. eranskinean zehazten diren erakundeei, ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauaren hainbat artikulutan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz.

Hamaikagarrena. Lurralde Oreka Saileko foru diputatuari ahalmena ematea behar adina egintza burutu eta behar adina xedapen eman ditzan, espediente hauek izapidetzeko.

Hamabigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Hamahirugarrena. Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo

egunetik aurrera. Hori guztia, bat etorri Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 9a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orokaren Saileko foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orokaren zuzendaria

JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA



I. ERANSKINA. AUZOLANAK SUSTATZEKO EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

URTEA	ESP.	ERAKUNDE MOTA	ERAKUNDEA	OBRA	AURKEZTUTAKO AURREKONTUA	AURREKONTUA LAGUNGARRIA	DIRULAGUNTZA
2020	5008	A.B	ABORNIKANO	Bizikletetarako lanak egitea Landatxon	847,00	847,00	847,00
2020	5003	A.B	ANTEZANA DE LA RIBERA	Sarrerako kalea konpontzea Manzanosko aldean	7.920,66	3.331,90	3.331,90
2020	5040	A.B	ANTOÑANA	Antofiana-Oleo bidea konpontzea	28.767,75	23.159,40	23.159,40
2020	5037	A.B	APILAIZ	Haurrentzako parkeko hesiak eta mahaia eta pergola jartzea	29.913,62	29.913,62	29.913,62
2020	5049	A.B	ARGOMANIZ	Bidean iturria eta ingurua konpontzea	5.104,99	2.907,84	2.907,84
2020	5050	A.B	AZAZETA	Markesinaz eta egiturazko osagaietaz hornitzea edukiontzi estalkiak erakitzeko	19.294,56	19.294,56	19.294,56
2020	5027	A.B	BERNEDO	Urbanizazioa konpontzea	1.815,00	1.399,40	1.399,40
2020	5038	A.B	BOLÍVAR	Bideak konpontzea	19.965,00	19.965,00	19.965,00
2020	5051	A.B	DELIKA	Cubo inguruan 200 metro hodi berritzea	5.555,11	5.095,31	5.095,31
2020	5033	A.B	DURRUMA	Atxikitako eraikinen barne espazioen akaberak	21.515,01	21.515,01	21.515,01
2020	5067	U	ERRIBERAGOITIA	Euri uren kanalizazioa Done Mikelen	8.518,23	6.988,79	6.988,79
2020	5002	A.B	ETURA	Eremu publikoa egokitzea	2.805,86	1.472,09	1.472,09
2020	5010	A.B	ETXABARRI IBIÑA	Zabor edukiontzi estalkia	22.242,73	22.242,73	22.242,73
2020	5011	A.B	ETXABARRI URTUPIÑA	Jolas eremuko hesia	1.887,60	1.887,60	1.887,60
2020	5012	A.B	FAIDU	Zubian baranda jartzea	2.143,46	2.143,46	2.143,46
2020	5046	A.B	GATZAGA BURADON	Egungo zabuak lekuz aldatu eta hobetzea	12.208,53	10.635,53	10.635,53
2020	5055	A.B	GAZEO	Gazarra eremuan edukiontzi estalkiak jartzea	8.408,13	8.408,13	8.408,13
2020	5013	A.B	HERMUA	Markesinaren sarbidea	7.393,10	3.074,61	3.074,61
2020	5004	A.B	IBARGUREN	113 A lurzatiako bidea konpontzea	21.880,94	21.880,94	21.880,94
2020	5056	A.B	ILARDUIA	Markesina	3.997,26	3.997,26	3.997,26
2020	5036	A.B	ILARRATZA	Jarlekuak konpontzea	205,33	205,33	205,33
2020	5014	A.B	IZORIA	Errota konpontzeko lanen lehen fasea	28.979,50	28.979,50	28.979,50
2020	5057	A.B	KARKAMU	Garbitegirako atez hornitzea	2.783,00	2.783,00	2.783,00
2020	5015	U	KRIPAN	Hiri altzariak udal parkerako	9.403,82	9.403,82	9.403,82
2020	5058	A.B	LABRAZA	Tresna osasungarriak instalatzea	11.088,71	11.088,71	11.088,71
2020	5034	A.B	LACERVILLA	Hesiak aldatzea haurrentzako jolas eremuan	1.527,20	1.527,20	1.527,20
2020	5016	U	LAGUARDIA	Hobekuntzak egitea El Campillar zentro sozialean eta haren inguruan	8.369,57	8.369,57	8.369,57
2020	5032	A.B	LAMINORIAKO ERRET HARANA	Materialez hornitzea Aletxan Beheko Iturriko garbitegia zaharberritzeko	25.736,83	24.796,67	24.796,67
2020	5041	U	LEZA	Hiri ekipamendua jartzea	7.136,58	7.136,58	7.136,58
2020	5059	A.B	LEZAMA	Lapatzako hobi septikoko sarbidea konpontzea	23.123,34	23.093,11	23.093,11
2020	5060	A.B	LLANTENO	Eskolen inguruan haurrentzako jolas eremuko ingurua jartzea	5.717,20	5.717,20	5.717,20
2020	5043	A.B	LUIAONDO	Tresnak gordetzeko kasetak jartzea Luiaondon	3.749,70	1.007,84	1.007,84
2020	5018	A.B	LUNA	Hormigoia botatzeko bidean	20.946,93	20.039,43	20.039,43
2020	5031	A.B	MANZANOS	Kirol zelaia babesteko sarea jartzea	822,80	822,80	822,80
2020	5006	U	MAÑUETA	Askotariko hiri altzariak eta ariketak egiteko jokoak jartzea Mañuetan	19.602,00	19.602,00	19.602,00
2020	5007	A.B	MARKINEZ	Argiak LED sistemara aldatzea	5.524,77	3.259,67	3.259,67



I. ERANSKINA. AUZOLANAK SUSTATZEKO EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

URTEA	ESP.	ERAKUNDE MOTA	ERAKUNDEA	OBRA	AURKEZTUTAKO AURREKONTUA	AURREKONTUA LAGUNGARRIA	DIRULAGUNTZA
2020	5061	A.B	MENAGARAI-BEOTEGI	Bidea konpontzea Menagarai-Beotegin	29.174,45	29.174,45	29.174,45
2020	5044	U	MOREDA ARABA	Hiri altzariak jartzea	8.470,00	8.470,00	8.470,00
2020	5062	A.B	MURGA	Hiri altzariak erostea	2.049,14	2.049,14	2.049,14
2020	5063	A.B	NARBAIZA	Barriko bolatokiko babesak	5.656,59	5.656,59	5.656,59
2020	5019	U	NAVARIDAS	Navaridasko hiri ingurua edertzea	29.859,32	21.873,32	21.873,32
2020	5020	A.B	NAVARRETE	Edukiontzi estalkiak jartzea	6.771,16	6.771,16	6.771,16
2020	5021	A.B	OTEO	Hiri altzariak eta barandak jartzea	8.058,24	8.058,24	8.058,24
2020	5028	A.B	PÁGANOS	Paganosko hiri ingurua edertzea	1.547,23	1.547,23	1.547,23
2020	5064	A.B	PAGOETA	Edukiontziak ezkutatzea	8.187,24	8.187,24	8.187,24
2020	5022	A.B	PIPAÓN	Zentro Soziala konpontzea	15.386,36	15.386,36	15.386,36
2020	5066	A.B	RIBABELLOSA	Eserlekuak jartzea	7.458,85	7.458,85	7.458,85
2020	5005	A.B	SALCEDO	Konponketak egitea eremuan	6.062,10	3.859,90	3.859,90
2020	5001	U	SAMANIEGO	Askotariko materiala erostea hiri altzariak konpontzeko Samaniegon	3.687,11	3.687,11	3.687,11
2020	5023	A.B	SANTURDE	Hiri altzariak	5.076,99	5.076,99	5.076,99
2020	5024	A.B	SARRIA	Zabor edukiontziak alboetatik estaltzea	11.829,09	11.829,09	11.829,09
2020	5068	A.B	SOBRÓN	Haur parkea	29.089,73	29.089,73	29.089,73
2020	5070	A.B	TERTANGA	Jolas eremuan hesiak jartzea eta egokitze lanak egitea	3.440,04	3.440,04	3.440,04
2020	5071	A.B	URTURI	Bidea konpontzea	4.886,52	2.983,12	2.983,12
2020	5073	A.B	VILLAMADERNE	Edukiontzi estalkiak	16.577,00	16.577,00	16.577,00
2020	5000	A.B	VILLANAÑE	Jolas ekipamendu berriak jartzea	4.396,93	4.396,93	4.396,93
2020	5045	A.B	ZAITEGI	Zaitlegiko sentro sozialerako sarbidean zoladura jartzea	20.423,59	19.547,55	19.547,55
2020	5042	U	ZALDUONDO	Karpa erostea eta jartzea herri ekitaldietarako	19.723,00	19.723,00	19.723,00
2020	5075	A.B	ZUHATZU KUARTANGO	Edukiontzi estalkiak: A-3316 zeharbideko 25+940 puntuan ezkerrean eta 26+330 puntuan ezkerrean	25.159,40	25.159,40	25.159,40

ESP.: Espedientea
A.B.: Administrazio Batzarra
U.: Udala



II ERANSKINA. AUZOLANAK. 2020an UKATUTAKO DIRULAGUNTZAK, EKAINAREN 27ko 21/2013 FORU ARAUA APLIKATUZ

URTEA	ESPEDIENTEA	ERAKUNDE MOTA	ERAKUNDEA	OBRA	ARRAZOIA
2020	5047	AB	ADANA	Kaleko seinaleak berritzea	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua
2020	5048	U	ARAMAIO	Barajuengo Gizarte Etxean aterpea egitea	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua
2020	5009	AB	ARBULU	Eguzki indarrez elikatutako farola bat jartzea	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua
2020	5052	U	BILAR	Bilarko pilotalekuko lorategiaren egokitze lanak	21/2013 Foru Arauaren 4. artikulua
2020	5053	AB	ERENTXUN	Hiru jarleku jartzea eta zabuak eta eronkoetatik babesteko caucho in situ berriro jartzea	21/2013 Foru Arauaren 8.6 artikulua
2020	5054	AB	FORTECHA	Bideak, bidexkak eta eremu komunak garbitzea eta mantentze-lanak egitea, haiek konponduz eta edertuz	21/2013 Foru Arauaren 9.4.8 artikulua
2020	5017	U	LANTZIEGO	Hiri altzariak parkean	21/2013 Foru Arauaren 5. artikulua
2020	5065	AB	LARRAZUBI	Kirol anitzetarako pisa eraikitzea	21/2013 Foru Arauaren 7.1 artikulua
2020	5029	AB	OKINA	Zentro sozialaren irisgarritasuna	Foru Gobernu Kontseiluaren 406/2019 Erabakiaren, ekainaren 25ekoa: 2.3. atala
2020	5030	AB	OLABEZAR	Areak garbitzea Olabezartik Cadenara doan bidean	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua
2020	5069	AB	SOXO	Campijo eta Sobrevilla eremuetan bide bana konpontzea	21/2013 Foru Arauaren 12.1 artikulua
2020	5035	AB	ULLIBARRI-ARRAZUA	Finketara joateko pasabideak konpontzea	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua
2020	5039	AB	ULLIBARRI-GAMBOA	Bizikletetarako bidexkak	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua
2020	5025	AB	URRUNAGA	Bolatokiko komunetarako saneamendua kanalizatzea eta edateko uraren hartunea eta hilerriko atea konpontzea	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua
2020	5072	AB	VALLUERCA	Pintura barandetarako	21/2013 Foru Arauaren 12.1 artikulua
2020	5074	AB	VILLAVERDE	Etxola-sarea- suteak	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua

AB: Administrazio Batzarra

U: Udala